

Lekeitio, euskal bilgunea

Herriko taldeek buru-belarri
jardun dute UEMA Eguna
prestatzeko lanetan

Bihar Lekeition izango den UEMA Egunerako *Bai! Euskaraz bizi gara* aukeratu dute lelotzat. Izan ere, euskaraz bizi den herria da Lekeitio, eta konpromisoa egiazkoa dela baieztatzeko, herriko taldeak bete-betean sartu dira biharko jaiko egitarauaren antolakuntzan.

Hamaikagarren UEMA Eguna izango da bihar, Lekeition. Urteik urtera, euskararen aldeko aldarrikapenentzat plaza bat bilatzen dute Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko kideek (UEMA), herrialde baten oraingoan, eta beste baten hurrengoan. Hortik ego-kitu zaio aurten antolakuntza Bizkaiari.

Iparraldea ere bai

Aurreko urteetako ospakizunekin alderatuta, dena dela, bada-go desberdintasun bat: aurten,

lehendabiziko aldiz, Iparraldea ere bertan izango da. Lekeition irudikatuko dute Iparraldeko Euskal Konfederazioarekin euskararen presentzia ziurtatzeko egindako hitzarmena. Hamairu herriko etxe ados jarri dira UEMArekin elkarlanean hasteko, eta horren berri emango du UEMAK Lekeitioko ekitaldian.

Lekeitiok euskararen arloan daukan egoera Iparraldeko herrialdeetako baina hobea izanik (Lea-Artibai EAEko eskualderik euskaldunena da), ez da eduki dezakeen onena, eta horren haritik, batez ere Osasungintzan, zerbitzu publikoetan eta Justizia arloan dauden hutsuneak nabarmendu dituzte.

«Asko dago egiteko», gogoratu dute lekeitiarrek. Izan ere, euskararen aldeko erabakiek eta aldarrikapenek bat egin behar dutela uste dute. Hortik, UEMAK aurtengo ekitaldirako azpilelotzat hartu duen esaldia: *Euskara ofiziala Euskal Herri osoan*. Getaria eta Orio dira UEMARA atxiki diren azken herriak.

Urrats berriak

Euskararen bidean, urrats berriak egin nahi dituzte, beste udalerri euskaldun batzuekin egindako elkarlanak zeregin hori lortzen lagunduko dien ustean.

Lehendik UEMAN dauden herriek, sartu berriek eta oraindik etortzeko direnek hitzordua daukate bihar Lekeition.



AMAIA ZABALO

Jaia eta aldarrikapena izango dira bihar Lekeition, UEMA Egunean, aurreko urteetan bezala.

MANIFESTUA

‘Bai! Euskaraz bizi gara’

Hona hemen, bihar, UEMAKo Batzar Nagusiko kideek ekitaldi instituzionalean irakurriko duten manifestua:

Badira zazpi bat urte Euskal Konfederazioa eta Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen arteko elkarlana hasi zenetik. Bi erakundeen arteko elkarlanaren oinarria: administrazio publikoan euskararen berreskurapena lortzea. Hainbat urrats eman ditugu elkarrekin azken urte hauetan. Azkena gaur aurkeztuko dugun egitasmoa: *Euskararen presentzia sustatu herriko etxeetan*.

Gaur, hemen, Udalerri Euskaldunen Eguna ospatzera etorritako Ipar eta Hegoaldeko euskaldunok euskararen alde beste urrats bat emateko konpromisoa hartu nahi dugu. Bate-tik, euskaraz bizitzeko konpromisoa berretsi eta, bestetik, euskararen ofizialtasuna Euskal Herri osoan aldarrikatu nahi dugu. Aipatutako konpromisoa eta aldarrikapena zeharo lotuta doaz, aldarrikapen hutsean geratzen den ekin-tzak ez baitu inongo eraginik.

Esan bezala, bide horretan, UEMA, Euskal Konfederazioarekin elkarlanean hasita dago, Iparraldeko udal administrazioetan *euskaraz ere* funtzionatzen hasteko lehen urratsak eman nahi dituzten Herriko Etxeak laguntzeko. Iparraldeko egoera oso bestelakoa bada ere, euskararen ofizialtasuna eta normalizazioa euskaltzale guztion jardueraren ondorioa izango da. Hori lortzen den bitartean, UEMA eta Euskal Konfederazioaren iritziz, Iparraldeko hautetsi euskaldunen hurrengo erronka, administrazio publikoan euskara frantsesaren parean jartzea izango da.

Izan ere, Ipar zein Hegoaldeko euskaldunontzat euskaraz bizitzea da euskal nazioa, hau da, Euskal Herria egituratzeko dugun tresnarik garrantzitsuenak. Azken finean, euskara, gero eta gune handiagoetan hizkuntza nagusia izatea, ez da ele gutxitu honi dagokion pribilegioa, berau normalizatzeko modu bakarra baizik.

Euskara ofiziala Euskal Herri osoan.

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

EGITARAUA

07:00: Dei eitekoak.

09:00: Gaiteroak.

11:30: Ekitaldi instituzionala.

12:30: Ekitaldi publikoa: dei eitekoak, irrintziak, atxikimendu puzzlea, bertsolariak, kaxarranka...

13:30: Altxorren bila.

14:30: Herri bazkaria.

16:30: Ur jolasak: hareazko gazteluen txapelketa, Abadeen moilatik tinglaura sokan eskegita, Isuntza Arraun Taldearen bateletan arraunean.

18:00: Erromeria, Alaitz eta Maiderrekin. Egun osoan, kale animazioa.

**Goierriko ALTZAGA, GAINZA, IKAZTEGIETA,
ITSASONDO eta ZALDIBIAKO Udalak
UEMAko beste udalekin elkaturik euskararen alde.**

